

# EAEko 2022rako AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA

Euskal Herria, 2021eko azaroaren 23a

**BURUJABETZA  
BIZITZA DUINERAKO**

**Vamos hacia el cambio**



## EAeko 2022rako AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA

Lakuako gobernuaren aurrekontu-proiektua 13.107,8 milioi eurokoa da guztira, hau da, aurreko urtean baino % 5,3 eta 665,4 milioi gehiago.

Hala ere, aurrekontuaren igoera termino errealean baloratzeko, kontuan hartu behar dira egungo inflazio-prozesua eta, ondorioz, diruaren eros ahalmen-galera. Gobernuak ez du kontsumoko prezioen bilakaerari buruzko aurreikuspen ofizialik jakinarazi, baina litekeena da aurten inflazioa % 3ra hurbiltzea urteko batez bestekoan.

Ohikoa denez, Lakuako gobernuak bere aurrekontu-proiektuaren berri eman du berriro, "historiako handiena", eta hori, printzipioz, ez da bereziki kontuan hartzekoa dinamismo ekonomiko handiko testuinguru batean. Izan ere, egungo suspertze-fasean BPG nominala % 8,5 haztea aurreikusten da 2021ean, eta % 7,9 2022an.

Egia esan, aurrekontuak eta BPGk izango duten bilakaera ikusita, gobernu autonomikoaren gastu-aurrekontuak garrantzia galduko du ekonomia osoarekiko.

Aurrekontu autonomikoaren diru-sarreraren osagai nagusia foru-aldundien ekarpenak dira, eta datorren urtean % 14,4 handituko direla aurreikusten da.

Baina gehikuntza horren jatorria ez da araudi fiskalaren aldaketa, baizik eta nagusiki susperraldi ekonomikoak bultzatuta.

Gobernu autonomikoa tematuta dago fiskalitatea aurrekontuen negoziazioetatik kanpo uzten, uste baitu "ez dela unea", eta, gainera, ez dela bere eskumenen parte, aldundiena baizik. Bien bitartean, foru-gobernuak, alderdi beren koalizioek sostengatuta, beste alde batera begira daude.

Aurrekontu-orientazioari dagokionez, Lakuak hedatzailatzat jotzen du, eta aurreko aurrekontuetan izandako jarrerarekin kontrajartzen du. Atzo gastu publikoa murrizteko neurrien defendatzaile sutsuak zirenak, gaur gizartearen aurrean agertu nahi dute austeritate-politika haiek iraultzearen alde.

Era berean, Jaurlaritzak azpimarratu du beharrezkoa dela 2022ko aurrekontu-ahaleginak bideratzea inbertsio-plan bat abian jartzera, berreskurapena bultzatzeko eta hurrengo hamarkadetako erronka nagusiak osatzen dituzten hiru trantsizio handiei aurre egiteko palanka gisa jardungo duena: teknologiko-digitala, energetiko-klmatikoa, eta soziala eta sanitarioa.

Hori finantzatzeko, gobernuak egokitzat jotzen du zerga-arauen erlaxazioa aprobetxatzea, Europako Batzordeak etenda izango baitu aurrekontu-egonkortasuneko helburuaren aplikazioa, hirugarren urtez jarraian.

Testuinguru horretan, zorpetze-politika gobernu zentralarekin lortutako akordiora egokituko da, bertan BPGren % 0,9ko defizit-muga adostu baitzuten.

Beste laguntza-mekanismo bat Europako funtsak izango dira, baina oraindik ez dakigu zein den bide horretatik jasoko den kopuru zehatza.

Gastu-kapituluen ikuspegitik, guztizko aurrekontu-igoeraren zatirik handiena (zehazki, % 80 baino gehiago) inbertsio publikoko gastuek xurgatzen dute. Beraz, datorren urtean inbertsioa % 50 igoko da 1.605 milioitik gorakoa izateraino, aurreko urtean baino 535,4 milioi bat gehiago.

Hala ere, "inbertsio publiko" deiturikoan % 29 baino ez da bideratzen ekipamendu eta azpiegitura propio berrien ekoizpena edo erosketa finantzatzera, titulartasun publikoko izango dutenak eta Inbertsio Errealak izenpean jasoak.

Inbertsio-ahaleginaren % 62 Kapital-Yransferentziek eta -Dirulaguntzek xurgatzen dute; izan ere, enpresa pribatuen inbertsioak finantzatzeko ematen diren laguntza eta subsidio publikoak dira, trukean inolako ordainik jaso gabe.

Beste 144,7 milioi euro (gainerako % 9a) Aktibo Finantzarioetarako dira: enpresei kredituak eta abalak emateko, edo kapital sozialean partaidetzak eskuratzeko erabiltzen diren baliabideak dira, zuzenean edo Finantzen Euskal Institutuaren bidez.

(milaka eurotan)	2022	2021	Dif.	Var.
<b>Inbertsio Publikoa</b>	1.605.395,4	1.069.976,1	535.419,3	50,0%
<b>Inbertsio Errealak</b>	469.952,4	247.677,7	222.274,7	89,7%
<b>Kapitalaren transferentzia eta Dirulaguntzak</b>	990.706,7	770.281,3	220.425,4	28,6%
<b>Finantza Aktiboen Igoera</b>	144.736,3	52.017,1	92.719,2	178,2%

Langileen gastuei dagokion kapituluak 103,9 milioi euroko igoera aurreikusten du, eta ordainsarien % 2ko igoera jasotzen du.

Horri dagokionez, komeni da gogoratzea urrian KPIa % 5era iritsi zela urte arteko tasan, eta 2021ean urteko batez besteko inflazioa ez dela % 3tik beherakoa izango.

Bestalde, gobernu-ekintzaren lehentasunak aztertuko ditugu, bai eta horren aurrekontu-isa ere, gastuaren sailkapen funtzionala erabilita; horri esker, politika desberdinetara bideratutako baliabideen bilakaera egiazta dezakegu.

Urtero bezala, gobernuak aurrekontuen izaera soziala nabarmendu du, 10 eurotik 8 gastu sozialera bideratzen direla baieztatuz.

Lehenik eta behin, zehaztu behar da 2022an gizarte-politiketara bideratutako baliabideak aurrekontu osoaren % 68 direla. Ehuneko hori urrun samar dago gobernuaren propagandak iragarri nahi izan duen % 80tik.

Gastu sozialeko politiketan sartzan dira taulan 3. eta 4. zenbakiekin agertzen diren talde funtzionalak. Talde horietan sartzan dira Segurtasuna eta Gizarte Babesa, Gizarte Sustapena, Osasuna, Hezkuntza, Etxebizitza eta Hirigintza, Ongizate Komunitarioa, Beste Zerbitzu Komunitario batzuk, Kultura eta Euskararen Sustapena helburu dituzten programak. Guztira, 8.911,7 milioi euro dira.

FUNTZIOEN ARABERAKO GASTUA (milaka)	2022	2021	Dif.	Var.
<b>1. Izaera orokorretako zerbitzuak</b>	1.122.892,9	1.020.374,6	102.518,3	10,0%
<b>2. Babes zibila eta herritarren segurtasuna</b>	709.878,2	677.845,4	32.032,8	4,7%
<b>3. Gizarte-segurtasuna, -babesa eta -sustapena</b>	1.107.485,1	1.114.178,7	-6.693,6	-0,6%
<b>31. Gizarte segurtasuna eta babesa</b>	658.738,2	682.353,7	-23.615,5	-3,5%
<b>32. Gizarte-sustapena</b>	448.746,9	431.825,0	16.921,9	3,9%
<b>4. Izaera sozialeko ondasun publikoak ekoiztea</b>	7.804.220,8	7.452.248,6	351.972,2	4,7%
<b>41. Osasungintza</b>	4.161.412,0	3.994.412,0	167.000,0	4,2%
<b>42. Hezkuntza</b>	3.008.746,5	2.887.661,5	121.085,0	4,2%
<b>43. Etxebizitza eta hirigintza</b>	193.449,2	173.434,2	20.015,0	11,5%
<b>44. Ongizate komunitarioa</b>	47.253,9	41.340,8	5.913,1	14,3%
<b>45. Kultura</b>	249.684,4	220.740,9	28.943,5	13,1%
<b>46. Bestelako zerbitzu sozial eta komunitarioak</b>	18.291,0	14.906,8	3.384,2	22,7%
<b>47. Euskararen sustapena</b>	125.383,9	119.752,4	5.631,5	4,7%
<b>5. Izaera ekonomikoko ondasun publikoak ekoiztea</b>	866.743,7	765.013,3	101.730,4	13,3%
<b>6. Erregulazio ekonomiko orokorra</b>	103.668,0	43.199,1	60.468,9	140,0%
<b>7. Ekoizpen-sektoreen erregulazio ekonomikoa</b>	382.838,0	300.381,3	82.456,7	27,5%
<b>9. Harreman finantzieroa veste administrazio publiko batzuekin</b>	80.584,6	85.909,9	-5.325,3	-6,2%
<b>0. Zor publikoa</b>	929.488,6	983.214,0	-53.725,4	-5,5%
<b>GASTUA GUZTIRA</b>	13.107.800,0	12.442.365,0	665.435,0	5,3%
<b>GASTO SOZIALA</b>	8.911.705,9	8.566.427,3	345.278,6	4,0%
<b>Gastu Soziala / Gastu Osoa</b>	68,0%	68,8%		

Bigarrenik, itxuraz % 68 hori beste aurrekontu autonomiko batzuetan baino proportzio handiagoa da. Hala ere, gastu sozialaren ustezko handitze hori EAEn dauden administrazio publikoen arteko eskumen-banaketaren eredu bereziari zor zaio.

Zehazki, Kontzertu Ekonomikoa eta Kupoaren ordainketa dira erabiltzen ditugu tresnak gobernu autonomikoak bere gain hartu ez dituen eskumenetan Estatuaren gastuak finantzatzek. Eta eskumen horietara bideratutako gastuaren zenbatekoa Estatuko aurrekontuaren % 67 baino gehiago da.

Baina foru-aldundiak arduratzen dira Estatuari "ekarpen" horiek egiteaz, zerga itunduen bidez bildutako diru-sarrerekin. Horregatik, gastu horiek ez dira Eusko Jaurlaritzaren kontuetan agertzen, eta horrek errealitatera egokitzen ez den gizarte-aurrekontuen irudia simulatzen laguntzen du.

Hirugarrenik, 2021erako onartutako aurrekontua eta 2022rako proiektua alderatuz gero, ikusten da gizarte-gastuetara bideratutako aurrekontu-ahalegina murriztu egin dela, gastu osoen ehunekoak %68,8tik % 68ra igaroko litzatekeelako.

Aurrekontuan gastu sozialak duen pisuaren beherakada berri horrek aurreko krisiaren eta aurrekontu-murrizketen politikaren ondorioz hasitako joera negatiboa sakontzen du.

### **Gizarte-gastuaren beherakadari buruzko atzerabegirakoa, termino errealetan.**

2009. urtean benetan gauzatutako gastu soziala (ez hasierako aurrekontua) aurrekontu osoaren % 73,9 zen. Ordutik aurrera, gizarte-politiken pisua murrizten hasi zen, gizarte-murrizketen ondorioz.

Aldi berean, zorpetze gero eta handiagoaren ondoriozko finantza-karga handitu eta gero eta aurrekontu-baliabide gehiago xurgatu zituen, eta horrek egoera larriagotzen ere lagundu zuen.

Enplegu-politika aktiboen transferentziak ere ez du ahalbidetu gastu sozialaren beherakada makillatzea.

Politika horiek 2011n eskualdatu ziren, eta 472 milioi euroko kostua izan zuten; kopuru horrek murriztu egiten zuen Estatuari bere gain hartu gabeko eskumenengatik ordaindu beharreko kupoak. Horrek esan nahi zuen EAEko erakundeek baliabide gehiago izango zituztela eskura, eta aldundiek Eusko Jaurlaritzari egingo zioten ekarpena handitu egingo zela, ordutik aurrera eskumen berriak finantzatu beharko baitzituen.

Horregatik, gizarte-politiken pisua gauzatutako gastu osoaren % 74,1era igo zen 2011n, baina gero berriro jaitsi zen, murrizketa berrien ondorioz.

Egia da 2014an hasitako susperraldi ekonomikoaren ondoren gizarte-politiketarako aurrekontuko diru-hornidurak berreskuratzen hasi zirela, gutxienez termino nominaletan. Hau da, inflazioaren ondorioek eragindako diruaren balio-galera kontuan hartu gabe.

Hala ere, argi dago gaur egungo 100 eurok ez dutela duela hamar edo hamabi urteko balio bera termino errealetan edo erosteko ahalmenean.

Beraz, aurrekontu-likidazioaren estatistikek erakusten dutenez, 2014tik aurrera gizarte-politiketara bideratutako gastuak gora egin duela, termino nominaletan. Hala ere, inflazioa deskontatua<sup>1</sup>, diru-kopuru gehigarri horien benetako balioa ez da nahikoa izan duela urte batzuk izandako murrizketei aurre egiteko.

Zehazki, eta aurrekontu-aurreikuspenak betez gero, 2022an gobernuak gizarte-politiketan egindako inbertsioa % 2,2 jaitsi da termino errealetan, 2009ko aurrekontu-bolumenarekin alderatuta.

Bestela esanda, Urkulluren gobernuak ez du ez sentsibilitaterik ez borondate politikorik erakutsi gastu soziala handitzeko, austeritate-politikak atzean utzi eta horren ondorioak konpontzeko. Horrek, kasurik onenean, hamahiru urte geroago "irteera-laukitxora" itzuliko gintuzke.

Bien bitartean, jasandako krisi larrien ondorioz, gizarte-premiekin gora egiten jarraitzen dute, eta horrekin areagotu egiten dira historian zehar zerbitzu publikoen eta gizarte-babesaren arloan izan ditugun egiturazko gabeziak.

---

<sup>1</sup> 2021 eta 2022 urteetan inflazioa batz bestea %2,9 eta %2,3 izango diren aurreikuspenarekin egin dugu lan.